

SELEKTIBITATEA KIMIKA ORGANIKOA

1.-2017EAC3

C.3. 4-penten-1-ola konposatua emanda:

- Idatzi dagokion formula.
- Idatzi Br_2 -arekiko adizio-erreakzioa, eta izendatu erreakzio horren ondorioz eratzen den konposatua.
- Idatzi H_2SO_4 kontzentratuarekiko deshidratazio-erreakzioa, eta izendatu erreakzio horren ondorioz eratzen den konposatua.

2.-2017EBC3

C3. Erantzun:

- Adierazi, arrazoituz, zer konposatu erabil daitezkeen azido bat lortzeko oxidazio-prozesuaren bidez.
 - 1-pentanola. (pentan-1-ola ere deitu dakiok)
 - 2-butanola. (butan-2-ola ere deitu dakiok)
 - 1,1-dikloro-1-propanola. (1,1-dikloro-propan-1-ola ere deitu dakiok)
 - Propanala.
 - Propanona.
- Adierazi 1-pentanolaren (edo pentan-1-olaren) posizio-isomero bat.
- Arrazoitu ea propanonak posizio-isomerorik izan ote dezakeen.

3.-2017UAC3

G3. Osatu erreakzio hauek, izendatu haietako bakoitzean lortutako produktuak eta adierazi zer erreakzio mota gertatzen den:

- $\text{CH}_3\text{CH}_2\text{CH}_2\text{OH} \xrightarrow{\text{H}^+, \text{desosa}} \text{---}$ (0,50)
- $\text{CH}_3\text{CH}_2\text{OH} + \text{HCOOH} \longrightarrow \text{---}$ (0,50)
- $\text{CH}_2=\text{CHCH}_2\text{CH}_3 + \text{HBr} \longrightarrow \text{---}$ (0,50)

4.-2018EAG3

G3. Izendatu eta formulatu konposatu hauek:

- $\text{CH}_3\text{OCH}_2\text{CH}_3$ -aren funtzio-isomero bat.
- $\text{C}_6\text{H}_4\text{Cl}_2$ konposatu bentzenikoaren hiru posizio-isomero.
- Formulatu konposatu hauek: Pent-2-eno-1,5-diola; 3,5-Dimetilhex-4-enala; Propil metanoatoa; Prop-1-enamina; Azido pent-3-enoikoa.

SELEKTIBITATEA KIMIKA ORGANIKOA

5.-2018EBG3

G3. Izendatu eta formulatu konposatu hauek:

- a) $\text{CH}_3\text{OCH}_2\text{CH}_3$ -aren funtzio-isomero bat.
- b) $\text{C}_6\text{H}_4\text{Cl}_2$ konposatu bentzenikoaren hiru posizio-isomero.
- c) Formulatu konposatu hauek: Pent-2-eno-1,5-diola; 3,5-Dimetilhex-4-enala; Propil metanoatoa; Prop-1-enamina; Azido pent-3-enoikoa.

6.-2018UAG1

G1. Konposatu organiko hauek emanda: azido propanoikoa, butan-2-ola, butanona, metil propanoatoa:

- a) Idatzi konposatu bakoitzaren formula erdi garatua. (0,50)
- b) Idatzi eta izendatu butanonen bi funtzio-isomeroen formulak. (0,50)
- c) Metil propanoatoa azido karboxiliko eta alkohol egokietatik hasita sintetizatzeko ekuazio kimikoa idatzi. (0,50)
- d) Idatzi, beharrezko erreaktiboak gehituz, butanona lortzeko erreakzioa butan-2-oletik abiatuz. (0,50)

7.-2018UBG3

G3. Ondorengo erreakzio kimikoak osatu. Konposatu organiko guztien formula erdigaratuak idatzi eta erreakzio produktuak izendatu.

- a) 2-Bromobutanoaren deshidrohalogenazioa base batekin. (0,50)
- b) Propan-1-olaren oxidazioa oxidatzaile apal batekin. (0,50)
- c) Azido pentanoikoaren esterifikazioa propan-2-olarekin. (0,50)